

PRENTSA OHARRA

Euskal Kazetarien 2007 Saria jasoko du Manu Leguinechek astelehenean.

Datorren astelehenean, hilak 18, arratsaldeko 20:00etan, Manu Leguineche eskarmentu handiko kazetariak Euskal Kazetarien 2007 Saria jasoko du Bilboko Ertzilla Hotelean, Euskal Kazetarien Elkarteak (EKE-APV) emango dio saria, hark bitzta osoan zehar eginiko lan-profesional bikaina aintzat hartuta.

EKE-APVren Zuzendaritza Batzorde berriak, dela urte bete eskas hautatua, Euskal Kazetarien Saria sortzea eta aho batez Manu Leguinecheri ematea erabaki zuen direla zenbait hilabete. Saritua gernikarra da, kazetaria, gerra berriemailea, Colpisa eta Fax Press albiste agentzien sortzailea, idazlea, bidaiaria...

Datorren astelehenean, Bilbon, bere herrialdean, bere lagun eta lankideen eskutik, Manu Leguineche, kazetari belaunaldi askoren erreferentzi eta eredu, Euskal Kazetarien 2007 Saria jasoko du, Nicolás Alba eskultorearen 'Hitzen ehiztaria' izenburuko lan ederra hain zuzen ere. Sari banaketaren ekitaldia omenaldi bilakatuko da, euskal kazetariok Manu Leguineche miretsi, aintzat hartu eta estimatzen dugula erakutsiko du. Halaber, ekitaldian beste gizarte eta kirol agente batzuk izatea aurreikusi da.

Ekitaldian izango direnen artean ondorengoak aipatu daitezke, Elkarteko Batzordeko kideez gain, Fernando González Urbaneja, Espainiako Kazetarien Elkarteko Federakuntzako presidentea; Felipe Sahagún, kazetari lanetan Manuren laguna eta kidea; Rosa eta Benigno Leguineche, bere anai-arrebak, saria jasoko dutelarik. Ekitaldian zehar omenaldirako propio grabatutako irudiak erakutsiko dira. Honez gain, elkartasun eta zorion testuak irakurriko dituzte idazleek, kazetariak eta kideek, euren poztasuna erakutsiko dute, Manu zorionduz, euskal kazetaritzaren merezitako saria Leguinechek jaso izanaz pozarren. Honako hauen gutunak jaso dira: Miguel Delibes, Javier Reverte, Fernando González Urbaneja, Carmen Sarmiento, Juan Cruz, Gervasio Sánchez, Alfonso Bauluz, Rosa María Calaf, Lolo Rico, Vicente Romero, Pedro Aguilar, Ángel Benito Jaén, Marisa Ciriza eta Ángela Rodicio, besteak beste.

Kepa Junkera soinu-jolearen ekitaldiak emango dio amaiera jaialdiari.

Biografia-datuak:

Manu Leguinechek berezko estilo erakargarria sortzeko gaitasuna izan du lanbidean eman dituen urte ugarien zehar, audientzi handien errespetua eta sinesgarritasuna lortu du. Idatzi dituen liburu ugarietan mundu osoan zehar bizitako esperientziak kontatzen ditu eta gure herrialdean genero berri baten oinarriak ezarri ditu, literatur-kazetaritzaren maisu ukaezina bilakatu delarik.

Baliabide eskasekin eta gogo biziz, kazetaritza ona egin izan du bere bizitzan zehar, ondorengo belaunaldietako profesionalen aurrean kalitatezko erreferente bilakatu delarik. Era guztietako gaiak jorratu ditu, kirolen gainean idatzi du, mus-ari buruz, pertsona ospetsuetaz, gertakizun historikoetatik, lekuetatik, gudetatik... Bere lan anitzen artean azpimarratu beharrekoak dira: ‘La ley del mus’ (1992), ‘Los años de la infamia: crónica de la II Guerra Mundial’ (1995), ‘Adiós, Hong-Kong’ (1996), ‘Annual, 1921’ (1997), ‘Yo pondré la guerra’ (1998), ‘Apocalipsis Mao: una visión de la nueva China’ (1999), ‘La felicidad de la tierra’ (1999), ‘Hotel Nirvana’ (2001), ‘Recordad Pearl Harbour’ (2001), ‘Gibraltar’ (2002), ‘Los ojos de la guerra’ (2002), ‘Madrid de menú’ (2002), ‘Madre Volga’ (Seix Barral, 2003), ‘El último explorador’ (Seix Barral, 2004), ‘El viaje prodigioso’ (2005) y ‘El club de los faltos de cariño’ (2007). Bere lanari esker jasotako sarien artean honako hauek aipatu daitezke: Espainiako Kazetaritza Saria, Urrezko Luma, edota Cirilo Rodríguez, Godó, Julio Camba eta Ortega y Gasset sariak.

Gaur egun, aitortzen duenez, gertakizunak denbora gehiagoz aztertzea du gustuko, bertan lekuko izan denaren ikuspuntuarekin. Biziki maite du mundua eta zera adierazten du, “Belendizeko baserriak bakarti eta lotsatia naiz, lasaitasuna, isiltasuna eta baserri-munduarekin harremanetan jartzea maite dut. Pertsonak askatu eta elkartu egiten ditu landak. Lurraren zorientasuna da”.

Irmo ekin dio bidaiatzeari Leguinechek bere bizitzan zehar, norbera ezagutzeko biderik laburrena munduari bira ematea dela adierazteko haina. “Amets bat paseatzeko bidaiatzen dut, ohiturei eta nekeei ihes egiteko. Noizbehinka hobeto dakizu zeri egiten diozun ihes bilatzen duzuna baino. Bakoitzak bere arrazoiak ditu. Funtsezkoa aldarte ona ez galtzea da. Eta, izanez gero, maitasunik ez galtzea ere”.

Oso hartu-eman sakona du bere sustraiekin eta bere herrira, Gernikatik gertu, bueltatu ez izanaren arrazoiak itauntzen zaionean honako hitzekin ihardesten du “hurbilago egoteko da. Gogorra eta ahula naiz. Batzuetan nigandik hurbilago sentitzeko xedez joan egiten naiz, eta horixe bera gertatzen zait nire herrialdearekin ere”.